

**1999KO AZAROAREN 25EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeitabosta

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Josi Insausti Mujika
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristán
Patxi Plazaola Muguruza
Jon Berbel Aiestaran
Pello Garaialde Goikoetxea
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garín
Leire López Zurutuza
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gómez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna
Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko urriaren 28ko aktaren berri eman ondoren onartu egin da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2- KREDITU ALDAKETA

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: Aurreko batzarraldian komentatu zen kreditu aldaketa hau urtero egiten den gauza dela. Kreditu aldaketa hau azkeneko aukera da aurrekontuaren izan diren aldaketak doitzeko. Bi kreditu aldaketa mota proposatzen dira. Alde batetik, kreditu transferentziak eta beste aldetik kreditu gehigarriak.

Kreditu transferentziak hauek dira:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
20.00.226.313.02.06	Gizarte Ongizate iharduerak	4.000.000	2.100.000	1.900.000
10.00.332.121.00.01	Mailegu interesak: enpresak	29.434.000	6.000.000	23.434.000
50.00.601.432.00.07	Azp. eta urbaniz.: Pergolak	220.000.000	4.000.000	0
				216.000.000
	GUZTIRA ...	253.434.000	12.100.000	241.334.000

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
---------	-------	--------------------	------------	--------------------

10.00.224.191.00.99	Ezbeharrak	250.000	800.000	1.050.000
20.00.227.314.00.01	Beste enp.: etxeetarako asistentz	21.000.000	1.500.000	22.500.000
20.00.481.413.00.01	Laguntzabideko erresidentziak	13.000.000	600.000	0
50.00.601.432.00.04	Azp. eta urbaniz.: Espaloiak	15.000.000	7.500.000	13.600.000
10.00.853.455.01.00	Epe luzera akzioak.: EGUNKARIA	0	200.000	0
10.00.931.011.00.01	Mailegu amortizazioak: enpresak	72.500.000	1.500.000	22.500.000
GUZTIRA ...		121.750.000	12.100.000	133.850.000

Kreditu gehigarriak hauek dira:

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behinbetikoak
90.00.622.511.00.00	Eraik. eta eraik.: Obra mat. biltegia	0	22.500.000	22.500.000
GUZTIRA		0	22.500.000	22.500.000

Kreditu gehigarri hauek honela finantzatzen dira:

Sarrerren kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak/	Baliabidearen partziala
-----------------------	--------------------------	---------------------	-------------------------

edota gastuen partidak		gastuetako bajak	
1.50.00.601.432.00.07	Azp. eta Urb.: Pergolak	Gastuen baja	11.000.000
2.00.00.870.000.00.01	Kreditu Gehigarriak finantzatz. aplik.		11.500.000
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA			22.500.000

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Como sabeis desde hace muchos años carecemos de un espacio unitario donde se recojan todos los materiales, utensilios y vehículos de los servicios de obras y de limpieza viaria. Los tenemos dispersos y se veía de la necesidad de un edificio que diera respuesta a esas necesidades. En este momento estábamos utilizando un pabellón alquilado por 50.000 pts al mes, cuyo contrato está próximo a finalizar, de manera que de seguir deberíamos pagar la renta alrededor de 200.000 pts. Considerando que el hecho de adquirir un pabellón de este tipo es una inversión patrimonial a buen precio, lo que se propone es adquirir ese pabellón para dar una respuesta definitiva a las necesidades del servicio de limpieza y de obras. Esta adquisición no supone un aumento del endeudamiento ni del coste financiero del Ayuntamiento. Pabiloi hau Kiroldegi atzean dago. Ez da oso handia baina gure beharrei aurre egiteko nahikoa da. 225 metro karratu ditu eta azpian soto bat dauka acceso rodadoarekin eta inguruan mila eta bostehun metro gutxi gora beherako esparru pribatua gure erabileretarako. Guk bi behar mota ditugu, bata da biltegi moduan materialak pilatzeko nahiz eta kanpoan egon eta bestea daukagun makinaria barruan edukitzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Respecto de la tranferencia de créditos se constata que son inversiones realizadas en el municipio. No nos parece bien que haya fallos por parte de los técnicos al calcular las distintas obras a ejecutar. En cuanto a la compra del pabellón, nos parece bien.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Los técnicos hacen una previsión en base a un esquema y en base a unos objetivos definidos en la comisión de

urbanismo. Sobre la marcha se van produciendo cambios que la propia comisión asume.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Orokorki ados gaude proposatzen diren aldaketekin eta alde bozkatu dugu.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Tranferentzi-kreditu atalari buruz esan ezuzteko denak ezin direla aurreikusi eta zurituta daudenez ados gaude proposatzen denarekin. Bigarren kasuan berriz, baita ere ados gaude, gure egitarauan horrela azaltzen zelako.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3- ARAU SUBSIDIARIOAK. Udalerriko Planeamenduaren Arau Subsidiarioen bigarren aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Alkate jaunak Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) hirigintza batzordeburuari hitza eman eta honek propsamenaren berri eman du:

“AURREKINAK

1999ko iarailaren 30eko Udalbatzarrak, Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren aldaketari buruzko irizpide eta irtenbide orokorrak onartu zituen eta horien arabera egindako dokumentuari hasierako onespena eman zion. Espedientea hilabeteko epean jendaurren jarri zen 1999ko urriaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon eta 1999ko urriaren 5eko Euskaldunon Egunkarian argitaratuz. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Legeria aplikagarria, xedapen hauetan jasotzen da:

- Ekainaren 23ko 2159/1978, Erret Dekretuak onartutako Planeamendu Araudiaren 125. eta ondorengo artikulak.

- Onartzeko organuaren eskurantzari (Udalbatzarra) eta quorumari (gehiengo absolutua) buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokaletako Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legea.

Horren ondorioz, batzorde honek aipatutako aurrekinak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten dio:

Lehenik. Planeamenduko Arau Subsidiarioen bigarren aldaketari behin-behineko onespina ematea.

Bigarren. Erabaki hau espedientearekin batera Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea behin-betiko onespina emateko hala badagokio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PP, PSE-EE/PSOE eta EAJ/PNV-EAko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

EHko ordezkariak berriz esan dute abstenitu egingo direla.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurakako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (EH)

Horren ondorioz gehinego absolutuarekin onartu da proposamena.

4- ORDENANTZA. Jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko ordenantza aldatzeko proposamena.

Alkate jaunak Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) hirigintza batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du: “Bere garaian Udal honek onartu zuen prozedura bat herritarrei errazteko obraren lizentzia jasotzea. Baina 19997. urtean segurtasun neurriak eskatzen situen Erret Dekretua argitaratu da eta horren arabera badaude zenbait lan bereziak arriskuren bat lekarkeenak ez bakarrik langilei baizik eta baita heritarrei ere. Horien artean hiru aipatzen dira: teilatuen eta kanaloiak konpontzea eta fatxadak pintatzeko nolabaiteko azpiegitura. Hau guztia kontuan izanik, obra txikien lizentziari eta jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko ordenantza aldatzea proposatzen da. Aldaketa honetan datza:

“ordenantzaren 6. artikuluan ondorengo gehitu behar da:

“3. artikuluko 3, 4 eta 5 kasuetan ikusonetsitako oinarritzko segurtasun-azterlana aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako dokumentuak, Udaleko teknikariek egiaztatuko dituzte eta herri-bidearen okupazioaz, bidezkoak iruditzen zaizkien aldaketak egin ahal izango dituzte.”

Horren ondorioz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzen da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Epe horretan ez bada inolako alegazio edo iradokizunik aurkezten, erabakia behin-betikoa izango da.””

Hitz egiteko txanda eman ondoren, talde guztietako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5- UR ZERBITZUAK

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Ur zerbitzuak ekonomia mistoko sozietatean parte hartzeko proposamena. Proposamen hau zerbitzu batzordeak egin du, baina ikusirik gaiak izan duen bilakaera, Patxi Plazaola jaunak defendatuko du.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak:

“SARRERA

Beasaingo ur-zerbitzura abonatuak eta ura eta estolderiaren mantenuaren kudeaketa zuzuen udalak berak darama. Gestio horren eraginkortasuna ona da eta ohi den bezala hobetu daiteke.

Halare, gerora begira uraren kudeaketak teknologi berrien erabilera handiagoa eskatuko du, uraren kudeaketan ari diren erakundeen arteko lotura ere bai (urtegiak, araztegiak, estolderia, abonatuak...) eta hori dena herritarrei zerbitzu hobetua eskaintzeko (informazio zehatzagoa, ur-hartune eta matxuren konponketa azkarra, kostoen kontrola...)

UR ZERBITZUAK S.A.

Gipuzkoako Ur Patzuergoak , bere kide diren udalen eskariz, elkarte berri bat sortu zuen udalerrietan uraren banaketa kudeatzeko.

Ondorioz, 1995ean UR ZERBITZUAK S.A. enpresa sortu zen. Orain arte kapital mistoko elkarte bezala eratu da. Alde batetik , bazkidetzen diren udalak dira kideak eta bestetik, akzio-gutxiengoarekin, lehiaketa bidez aukeratua izan den PRYDESA enpresa pribatua.

Urte batzuk igaro dira eta ustez Prydesak eskeintzen duen egiten jakiteaz UR ZERBITZUAK jabetu dela , Prydesak dituen akzio guztiak erostea proposatu dio Gipuzkoako Ur Patzuergoaren batzorde eragileak bere Batzorde Orokorrari. Ontzat hartuko balitz proposamena , kapital osoa jabego publikoaren esku geratuko litzateke.

PROPOSAMENAREN ZERGATIAK.

UR ZERBITZUAK S.A. elkarteko kide izateko proposamen honek ur-zerbitzura atxikituta dauden **udal-langileen eskubideak** bere osotasunean errespetatzen ditu eta langile hauen jarrerak erraztu egin du proposamen hau gaur hemen aurkeztea.

Urte hauetan udal ugari bihurtu dira Ur Zerbitzuakeko kide, hala nola : Deba, Zumaia, Legazpia, Oñati, Tolosa, Idiazabal,... Beraz, **eskarmentu** nahiko duela uste da , bestalde gutxieneko **neurriraketa** lortu du sinergiaz baliatzeko eta guzti honek nahiko bermea eskeintzen du ur-zerbitzuaren efizientzia areagotzeko.

Arlo ekonomikoaren ikuspegitik esan daiteke ur-kudeaketaren diru sarrera-irteerak doituak daudela Beasaingo udalaren aurrekontuetan eta ez da doikuntza horretan berehalako aldaketarik aurrikusten, Ur Zerbitzuak elkarteko kide bihurtuz. Baina bai, epe ertainerako arrikusten da etengabeko hobekuntza ur eta estolderia sareen zaintza sistematiko eta espezialduan, kontsumo eta fakturazio kontrolaren zehaztasunean eta herritarren berariazko arretan; laburbilduz, gizarte eta ekonomi onurak.

Ur Zerbitzuak elkarteari uraren kudeaketa lagatzeko proposamen honetan **egokierazko** arrazoa ere badago. Eskualdeko zenbait udal hasiak dira harremanetan enpresa horrekin uraren kudeaketa lagatzeko. Hau kontuan izanik , **eskualdeko zerbitzuak** Beasainen kokatzeko Ur Zerbitzuak egin duen eskeintza oso ondo deritzo udalari. Aurkezten den proposamenean eskeintza hori bete-beharrean bihurtzen da.

Beasaingo udalak berea duen eta neurtezina den beste arrazoa ere kontuan izan du: **udalen arteko elkartasuna**. Jakin badakigu, biztanle-kopuru gutxiko hainbat udalerrri , Beasaingo udalaren erabakiaren baldintzapean daude , Ur Zerbitzuak elkarteko kide izateko.

Beraz, , Beasaingo udala Ur Zerbitzuak s.a. baltzuko kidea izateko eta aldi berean ura eta estolderia sareen mantenuaren kudeaketa eta abonatuena ere elkarte horren esku lagatzeko luzatzen den proposamen hau, arestian azaldutako zergatiak, justifikatzen dute ”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Leido los informes, conforme.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE) jaunak: "Nahiko harrিতuta gaude proposamen honekin. Lehengo legealditik datorren gai honek hainbat aurrekin ditu eta elementu bitxiak azaltzen ditu. Udalbatzarrerara aurkeztu da inoiz baino dokumentazio zabalagoarekin. Lehenengo aldia da Idazkaritzako txostena ikusten dudala, proposatzen dena juridikoki baliatuz. Orain arte Udalbatzarrean tratatu diren gaietan alde aurretik ia inoiz ez da aurkeztu, nik behintzat ez dut ikusi, baina oso ondo iruditzen zait. Beste aldetik harrigarria da zerbitzu batzordetik datorren gai bat, hirigintza batzordeko lehendakariak defendatzea. Hasiara batean aparteko bileran batean aurkeztu behar zela esan zen. Azkenik zuzendu egin da eta ohiko bileran tratatzen da. Honek guztiak eta beste gauza batzuk sensazio arraroa sortzen dit. Ia lehengo legealdian gai hau ez zen normaltasunarekin tratatu. Ez da gai hau izan batzordetan tratatu dena eta ebatzi dena. Ur Zerbitzuak enpresari zerbitzua emateari buruz, lehengo legealdian ez ginan hirukoikiak akordio batetara iritsi, izan ere batzuk proposatzen genuen lehiaketa bat egitea, (EAK ere bai, eta orain ez dut aldaketa ulertzen) enpresak horren arabera euren eskaintzak aurkezteko. Ez lehen eta ez orain ez dago inolako arrazoirik irizpide hau aldatzeko eta ez dugu ulertzen zergaitik ez den lehiaketa bat egiten, zabor biltzea biltzeko egin zen bezala. Beasaingo Udala Ur Zerbitzuak enpresaren akzionista izatea abantaila dela esaten da. Nire ustez Udalak bermatu behar duena da urzerbitzu on bat ematea kostu gutxienean eta kalitate onarekin. Akzionista izateak ez du inolako abantailarik. Horrek ez baitigu bermatzen zerbitzuaren kalitatea. Zentzu honetan ere azpimagarria da Ur Zerbitzuak enpresaren txostenean aipatzen dena, hau da, lehiaketa ez egin beharra abantaila dela. Hori, Udalarentzat edo Ur Zerbitzuak enpresarentzat da abantaila? Lehiaketak izapide administratiboak, epeak eta abar supostzeak ez da garrantzizkoa, izan ere horrek bermatzen du azpikontratazioaren gardentasuna. Atal ekonomikoan Ur Zerbitzuak enpresarentzat izango lukeen kostuari buruzko koadro bat azaltzen da baina ez da azaltzen Udalari suposatuko liokeena. 97. urtean, Ur Zerbitzuak enpresak eskaintzen duen baldintza berdinetan, Beasainen kokatuko litzateken harrera bulegoa barne, prezio merkeagoan zerbitzua emando lukeen enpresak ba zeuden. Orduan prezioa hamazazpi milioikoa zen gutxi gorabehera. Alde handia dago eta lehiaketa ez egitea zuzitzen duen arrazoirik ez dago ezta ere Beasaingo Udala Ur Zerbitzuak enpresaren akzionista izatea. Solidadeari buruz esan, enpresa desberdinek Beasain sartzea nahi dutela, horrela inguruko herri txikiak ere sartu egingo dira, izan ere ez herri txikiak ezta ere enpresaren ez da errentagarria zerbitzua herri txiki bakarrak ematea handiak sartzen ez badira. Gure jarrerara proposamenaren aurkakoa izango da."

Andoni Antxia (EH) jaunak: "Gure jarrera azaldu aurretik, esan nahi dugu gutxienez hamabost minutuetan ilegaltasunean funtzionatzen egon garela batzarraldi honetan pertsona bat pistola batekin egon delako. Espero dugu

inoiz gehiago horrelakorik ez gertatzea. Hemen egon diren pertsona hauek, hau da Senideak taldekoek, hemen egoteko eskubidea dute.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Hori nire errua da, nire ardura delako eta ez naiz ohartu.”

Andoni Antxia (EH) jaunak: “Tratatzen ari garen gaiari dagokionez, esan edozein gauzetaz ez garela ari hitz egiten, izan ere bizitzeko zerbait behar bada hori ura da. Duen garrantzia izanik, ez da nahikoa Beasainek izango lituzkeen abantailak aztertzea. Ikuspen orokorra izan behar dugu eta eskualdeko herri txikiak ere kontuan izan. Guretzat arrazoï nagusia hau da: ez dugu bakarrik Beasainen alde apustua egiten. Behar-beharrezko ondasunaren aurrean denok ditugu eskubide berdinak, herri handiantan nahiz herri txikietan bizi direnak. Proposamen honekin ez da bakarrik ur-hornidura betetzen, baizik eta uraren ziklo osoa. Proiektu honekin dena bermatzen da eta horregatik alde bozkatu dugu. Gai honetan arlo ekonomikoak lehentasuna ez duenez, lehiaketa ez egitea zurituta gelditzen da.”

Josi Insausti (EA) jaunak: “Jose Luisek esan du ez duela ulertzen Earen aldaketa. Hau azaltzeko esango dut, aurreko legegaldiko eztabaida zen Ur Zerbitzuan enpresan pribatua zegoela eta horregatik pensatzen genuen lehiaketa egin behar zela. Orain aldiz, Prydesa enpresa publikatu egin behar da eta kapitala publikoa izango da. Lehiaketa bat egingo bagenu enpresa pribatuek parte hartuko lukete. Nahiko arrazoa da aldaketa zurituzeko. Esan beharra dago baita ere, bere garian mahai gainean bi proposamen genituela: ANSArena eta Ur Zerbitzuarena. ANSA enpresa pribatuak bere aukerak izan ditu lehiaketa egin den hainbat Udaletan. Udal horietan Alkatetza EAkoa zen eta nahiz eta ANSAko proposamenak izan, lehiaketak Ur Zerbitzuak enpresaren alde adjudikatu dira. Esan beharra dago halaber enpresa horrek lehiaketak galtzen zihoan eran, Beasaingo Udalarari lizitazio prozedura egitea sahiesten zuen formula proposatu ziola. ANSAren proposamenak kea besterik ez dira izan, inolako berririk ez duelako eskaintzen, inplantatuta dagoen Udaletan ezik. Honelako gai garrantzitsuan ez dugu arriskatu behar.”

Patxi Plazaola (EAJ /PNV-EA) jaunak: “Yo creo que están las posturas muy claras. Simplemente para responder decir, que desde Goieki siempre se ha intentado que haya servicios mancomunados en la comarca. Esto iría en esa filosofía. En Sasieta se creó una estructura a la que se han incorporado otros Ayuntamientos. En este caso también una estructura creada por los Ayuntamientos entre los que está el de Beasain. Respecto al hecho de hacer concurso o no hay está el informe jurídico y que creo que antes también ha estado a vuestra disposición. Se han hecho algunas comisiones de servicios desde el comienzo de la legislatura a la que los del PSOE no han asistido.

Nosotros somos socios capitalistas de esta empresa. Si esta empresa algún día tiene superavit revertirá en la mejora de las instalaciones correspondientes al agua en Beasain. Si hubiera participado cualquier empresa privada también tendría como objetivo el ganar. Lo que consideramos también importante es que entramos a formar parte de la empresa pero seguimos teniendo toda la capacidad para salir en cualquier momento si no funciona o no es conforme a nuestros deseos. En un concurso público estaríamos atados por lo menos durante ocho años. Finalmente decir que en torno del agua se genera mucha obra civil y las empresas es precisamente esto lo que van a buscar.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Votos a favor: 14 (EAJ/PNV-EA, EH, PP)

Votos en contra: 3 (PSE-EE/PSOE)

Abstenciones: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKINAK

Gipuzkoako Ur Kontorzioaren bitartez, Udal hau partaide izanik, honako prozedura egin da, dagokion tramitazio legala zuzenki jarraituz: Ur Zerbitzuak, S. A. Ekonomi Mistoko Sozietatea sortzea, Gipuzkoako Ur Kontorzioak eta “Proyectos e Instalaciones de Desalación, S.A.” enpresaz osatuta. Honen helburu garrantzitsuenak hauek dira:

- Abonatuen gestio komertziala, hau da, kontadoreen irakurketa, ordenadorez errezioben prestaketa, erreziobo hauen kobraketa, kontadoreen kontserbazio, mantenimendu eta aldaketa, ur horniketaren kontratazioa (altak, bajak, titular aldaketak, prezintaketak..), bezeroen arreta, kontsultak, erreklamazioak, etab....

- Horniketa eta Saneamenduko sareen ustiapena, ura kopuruaren etakalitatearen kontrola barne, horniketa eta saneamenduko sareen mantenimendua eta konponketak, akometiden burutzea, ur isuriaren bilaketa, planoen moldapena eta mantenimendua, horniketa eta saneamenduko instalazioak zaintzeko Plan Zuzentzailearen egiera.

- Gestio osoa Ur Zerbitzuak-en eskuetan uzten dutn eta kontsorzioko parte diren udaletako horniketa eta saneamenduko sareen gestio osoa.

Udal honentzako sozietate honetan partaide izatea interesgarria izanik, honekin batera doan memorian azaltzen denaren arabera, aurretiaz aktibo inmaterialaren zesioa dela, bertako akzioengatik aldagarria izanik, aktibo hori honela balioztatu da: 4.000.000 pezeta, Coopers & Lybrand enpresak eginiko balorazioaren arabera.

Era berean udal honetako komenigarria litzatekela ustea da uraren zerbitzuaren prestazio integrala, abonatuaren gestioa eta hornikuntza eta saneamenduko sareen mantenimenduan zehaztua. Hau, Ur Zerbitzuak, S. A. Ekonomi Mistoko Sozietate Merkantilaren gestio zuzena dela medio izango delarik, zeini egokituko zaio aipatutako zerbitzua betetzea.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Legeria aplikagarria xedapen hauetan jasota dago:

- Korporazio Lokaletako Zerbitzuen Araudiaren 102 eta hurrengo artikulua.
- Administrazio Publikoetako kontratuak arautzen duen Legearen 155,2 artikulua.
- Erabakia hartzeko ahalmena duen organua eta quoruma (Udalbatza Osoa, gehiengo absolutuarekin), apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu duen, apirilaren 21eko 11/1999 Legearen 22,f) eta 47,3f) artikulua.

Horren ondorioz, aurrekinak eta zuzenbidezko oinarriak kontuan izanik, Udalbatzarrari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. “Ur Zerbitzuak, S.A.” ekonomia mistoko sozietatean parte hartzea, enpresa honek Beasaingo Udalarekiko izan behar dituen harremanetan, proposamen honekin batera doazen baldintza partikularrak kontuan izanik.

Bigarren. Udal honi dagokion ibilgetu inmaterialaren balorazioa lau milioi (4.000.000) pezetatan finkatzea, uraren ziklo integralarekin erlazionatuta dagoen zerbitzu publikoa emateagatik, ur horniketa et saneamenduaren sareen mantenimenduan eta abonatuaren gestioan zehazten dena.

Hirugarren. Ur Zerbitzuak, S.A.ko 40 akzio izenpetu, akzio hauengatik udalerrian uraren ziklo integralarekin erlazionatuta dagoen zerbitzu publikoa emakidaren aktibo inmateriala ordainduz, 4.000.000 pezetatan zehaztuak,

abonatuen jectioan eta ur-horniketa eta saneamenduaren sareen mantenduarekin bat eginez.

Laugarren. Ur Zerbitzuak, S.A.ko estatutuak onartzea.

Bosgarren. Ur Zerbitzuak, S.A.ko Batzar Nagusian Udal honen ordezkaria PATXI PLAZAOLA MUGURUZA zinegotzi jauna izendatzea.

Seigarren. Jose Manuel Perez Dorronsorok, ur-arduradun langilea Ur-Zerbitzu enpresaren aginduetara lana egingo du, baina Beasaingo Udaleko plantilakoa izaten jarraituko du, hau da, menpekotasun organikoa Udalarena izango da eta funtzionala berriz Ur Zerbitzuak enpresarena.

Zazpigarren. Hartutako erabakiak hogeitun eguneko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Ediktu Taulan iragarkiak argitaratuz, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako alegazio edo iradokizunik aurkezten erabakiak behin-betikotzat hartuta izango dira.”

6- GOIEKI. Ordezkariak izendatzeko proposamena.

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Dakizuenek, Goieki bailarako Udalak osatzen dugun Elkarte Anonimo bat da Goierriko garapena bultzatzeko. Elkarte horren estatutuen arabera hamaika kide ditu Administrazio Kontseiluak eta aurreko legealdian bezala nahi da alderdi politiko guztietako ordezkariak bertan egotea. Estatutu horietan baita ere esaten da, Beasaingo udaletxeko hiru ordezkari izango direla, bi Ordiziakoak, bat Lazkaokoa eta beste bostak udalerritik. Ordezkariak izendatzeko alderdi politikoetako ordezkariak bilera bat ospatu eta proposamen bat adostu genuen, proportzionaltasuna aldera batera utzita, alderdi guztiei sarrera emateko. Hemen aurkezten den proposamenarekin, hamaika horien osaketa zein izango den adostuko dugu. Modu horretan datorren Goiekiko batzarrean udal erabakiaren ziurtagiria nahikoa izango litzateke eta ez dugu denok egon beharrik.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Yo también valoro positivamente el funcionamiento del Consejo y en ese sentido hay que hacer esfuerzos por lograr consensos en todos aquellos temas que nos afectan al conjunto de los municipios de la comarca.”

EHko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Goiekiko Batzar Orokorrean ondoren aipatzen diren Kontseilu kide hauek izendatzea:

ALDERDI POLITIKOA	HERRIA	HAUTATUAK
EH	BEASAIN	Arrate Izagirre Iriondo
EH	ZALDIBIA	Oroitz Etxabe Nazabal
EH	SEGURA	Luis M ^a Telleria Lezeta
EH	ITSASONDO	Jose M ^a Otegi Goenaga (botorik gabe)
EA-EAJ	BEASAIN	Jon Jauregi (EAJ) (botorik gabe)
EA-EAJ	IDIAZABAL	Antton Irizar (EA)
EA-EAJ	LAZKAO	Felix Urkola (EAJ)
EA-EAJ	ORDIZIA	Alejandra Iturrioz (EAJ)
EA-EAJ	ZEGAMA	J. Ignazio Galdós (EA)
PP	BESAIN	Julio Herreros
IU/EB	ORDIZIA	Pedro Lozano
PSOE	BESAIN	Jose Luis Elorza
INDEPENDIENTEA ZERAIN		Andoni Alustiza

7- MOZIOA. Gizarte eskubideen gutunari buruz Ehk aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak hitza Andoni Antxia EHko ordezkariari hitza eman dio eta honek esan du mozioa Gizarte Ekimenerakoak landutakoa dela eta horien bozeramaile gisa azaltzen direla.

Jarrarian mozioa irakurri du:

“1996ko abenduan, ehunetik gora gizarte erakundek honako ideia hau proposatu zion euskal gizarteari: langabezia eta pobrezia emaiara ematea Eskubideen Gutun gisako lege baten bidez egungo lana eta aberastasun

soziala banatuz. Herri-legengintza-ekimenaren legeak, EAEn Hautesle Erroldako bulegoetan egiaztaturiko 30.000 sinadura gutxienez bildu eta entregatzea exigitzen du, gehieneko 4 hileko epean, halako ekimen baten izapideak egiteko. Gehiegi eskatzea da horra iristea, eskabideak herritarren babes zabal-zabala izan ezean alde aurretiketa eskabide hori formulatzen dutenek antolakuntza aski hedatua, izan ezean herrialdeko zokondo guztietara heltzeko. Euskal historian egin den lehen Herri Legegintza-Ekimen honek hasieratik bertatik iritsi duen adostasun zabalaren froga ona dugu 82.052 sinadura entregatu izana, Erroldaren bulegoetan, behar bezala bete eta egiaztatutak.

Autonomiako Legebiltzarrak, 1997ko azaroan, gehinegoaren botoz onartu zuen Herri Ekimenaren izapidetza, une horrez geroztik Gizarte Gutuna antolamendu juridikoan barne sartuta geratu delarik, bere sasoian egingo zaizkien zuzenketa eta emendakinekin. Aurtengo urriaren 29an horretarako izendatu den parlamentu-txostena izango da, hain zuzen, lan horretaz arduratuko dena.

Dagoeneko hiru urte bete dira Herri Legegintza-Ekimenaren abian jarri zenetik, eta tarte horretan, hein bereko hazkundera izan dute pobrezia euskal mapak mutur batean eta aberastasunaren mapak beste muturrean. Hona hemen bion alderaketa ekidinezinak eskaintzen digun irudi anker eta ez-gizatiarra:

- I- Barne Produktu Gordina urtean %3,8ko metatze-tasen arabera hazi da azken 5 urteetan, langabezi bolumenak %15eko portzentaletan irauten duen bitartean.
- II- Pobrezia mugetan ozta-ozta bizi diren 180.100 langabetuz mintzo gara. Jakina da horietariko gehientsuak gazteak (%32) eta emakumeak (%24) direla, enplegaturik ez duen (inork lan egiten ez duen) familien kopurua 45.000ra heltzen delarik eta 4 lagunetik batek baino ez duelarik jasotzen gizarte prestazioren bat.
- III- Aldi baterako kontratuei dagokionez guztizko, lan kontratazioaren %93ra iristen dira. Horietatik %24^a denbora-zatizko lana da eta %21^a ETTren baten bitartez egiten da. Horren ondorioz, desberdintasun sakona ireki da enplegu finkoa dutenen eta behin-behineko lana baizik ez dutenen artean, langileria batezbesteko soldata 1995ekoaren mailen azpira jaitsi delarik.

- IV- Enpresa mozkinak, osterak, proportzio geometrikoan egin dute gorantz. Lan kostu bateratuak %82tik %70era jaitsi dira eta, azken hiru urteotan, metaturiko mozkin garbiak %247an igo dira, hau da, soldatak baino 25 bider gehiago.

Okerrena zera da, desberdintasunak horrela gehitzeak iraupen mailaren azpitik ozta-ozta bizi diren hamarnaka mila lagun bultzatu dituela gizarte bizitzatik kanpora, eta lagun horiek herritar gisa dituzten eskubideak berreskura ditzaten nahitaezkoa dela Gizarte Eskubideen Gutuna bezalako lege bat onartzea, pertsona bakoitza duintasunez bizi dadin derrigorrezko minimoak bermatzeko.

Bestalde, uste dugu Eskubideen Gutun hau, bidezkoa eta pemiakoa izateaz gain, bideragarria ere badela eskueran diren baliabide ekonomikoen aldetik; izan ere, haren atal guztiak finantzatzeko behar den dirua (hala lagunaren murrizketa nola erretiro-adinaren aurrerapena eta langabetu guztientzako gizarte soldataren eskubidea aitortzeari dagokiona) hazienda publikoak zerga-maularen ondorioz bildu gabe uzten duen diru kopurua baino hiru bider gutxiago baita. Aski litzateke administrazio publikoak zerga bilketaren mekanismo arruntak aktibatzea eta Europako batezbestekoaren parean jartzea (BPGaren %28) diru-sarrera publikoak Gizarte Gutunaren finantzaketa bideratzeko punturaino iritsi zitezten. Kontuan hartzekoa da zerga-maularen estimazio ofizialek hura urtean 500 mila milioi pezeta inguruan kokatzen dutela eta Gizarte Gutunaren kostuak ez duela 125 mila milioiko zifra gainditzen.

Nabarmendu nahi dugu, azkenez joan den maiatzaren enplegu banaketaren eta gizarte soldataren alde egin zen grega orokorrak, hain zuzen, herritarrek Gizarte Eskubideen Gutunaren eskabideei buruz duten adostasuna hedatzea ekarri zuela, eta gure herriaren gehiengoa osatzen dutenen sentipen hori ezin dutela aintzat hartu gabe utzi instituzio publikoak, zeinen mandatu nagusia gizartean bizi diren lagun guztien giza eskubideen egikaritzea bermatzea baita. Horrexegatik eskatzen diegu Beasaingo Udaleku udalkide guztiei ondoko ebazpen proiektuari beren laguntza eman diezaiotela.

EBAZPEN PROIEKTUA

- 1- Udal hau Herri Legegintza-Ekimenari atxikitzen zaio eta Gizarte Eskubideen Gutuna funtsezko edukietan bere egitea eskatzen dio Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrari.
- 2- Udal honek lanbidearteko gutxienezko alokairuaren baliokide den gizarte soldataren ezarpena eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari,

enplegurik gabeko eta duintasunez bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik gabeko lagun guztientzat.

- 3- Udal honek Gizarte Eskubideen Gutunarekin Solidaritatezko Ibilaldia bultzatzea erabakitzen du, ibiltarien ostatu eta janari gastuak bere gain hartuz.
- 4- Udal honek, lanastea 32 ordura murrizteko xede orokorraren ildotik, LHBk aadministrazioetan harturiko ebazpenekin bat datozen neurriak hartuko ditu, erretiroa 60 urterekin hartzea aldeztuz eta ordeko enplegu egonkorra sortuz.
- 5- Udal honek, langile funtzionarioek legeak horrela baimentzen diela eta 70 urtera arte aktiboan jarraitzeko egiten dioten eskarien aurrean, elkarren arteko solidaritatea sustatzea erabakitzen du, funtzionariook baimen hartaz balia ez daitezten eta lanik ez dutenen sarbidea erraz dezaten horrela.
- 6- Udal honek, eskubide kolektiboaren eta denen onaren izenean, udal langileen enpleguaniztasuna debekatzen du eta udal lanak beste edozein lan jarduera pribatuarekiko duen bateraezintasuna ezartzeko egoki diren neurriak hartuko ditu.
- 7- Udal bere udalerriko enpresa guztietan aparteko orduak baztertzea eta horiek lan egonkor bihurtzea aldeztuko du. Erabaki haori hala enpresari nola ordezkariak sindikalari ezagutaraziko zaio.
- 8- Udal honek, Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak eta Foru Aldundiak har ditzaketan neurri sozialen kalterik gabe, pobrezia mugan bizi diren bizikide-unitate guztien udal tasen ordainketaren luzamendua ebazten du.
- 9- Udal honek, Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak eta Foru Aldundiak har ditzaketan neurrien kalterik gabe, pobrezia mugan bizi diren bizikide-unitate guztien etxebizitza-ordainketaren luzamendua ebazten du, pezeta 1eko hileko errentarem ordainketa sinbolikoen eran, eta erabaki hori betetzeko egoki diren neurriak hartuko ditu.
- 10-Udal honek, Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrak eta Foru Aldundiak har ditzaketan neurrien kalterik gabe, pobrezia mugan bizi diren bizikide-unitateen etxe-energiagatiko gastuak bere gain hartzea ebazten du.

11- Udal honek, beste instituzio batzuek har ditzaketen ekimenen kalterik gabe, eta gizarte eragileekin adostua, Enplegu eta Gizarte Babeserako Batzorde bat sortzea ebazten du, Udalerriko gizarte eragile guztien partaidetzara irekia.

12-Ebatzitako guztia Udal bando baten bidez zabalduko da eta ohiko hedabideen bidez emango zaie ezagutzer udalerriko herritar guztiei, Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari ere kopia bat igorriko zaielarik.

Hau guztia.....aurkeztuta geratzen da.

Dagokion udalerriko Gizarte Gutunaren ordezkarien sinadura, helbidea eta harreman telefonoa.

Mozioaren izapidetza aldeztu duen erakunde eta alderdi politikoen sinadura eta zigilua erantsi.

Oharra: mozioa goiko ordena horretan eztabaidara eramatea nahi dugu, eta bozketa puntuz puntu egitea, ez blokean.

Beasaingo EH”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “Pensamos que no es el foro adecuado para plantear una moción de este tipo.”

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Gai hau beste Udalbatza batean tratatu genuen. EB aurkeztu zuen eta Udalak bere jarrera azaldu zuen. Politikoki nahiko bitxia da EHk horrelako mozioa aurkeztea. Momentu honetan gobernuan zaudetenez aurrekontuan aurreikusi beharko zenituzkete dagokion esleipena. Guk ez dugu eragozpenik puntuz-puntu eztabaidatzeko. Bozketa osotasunean planteatzen bada gure jarrera abstentzioa izango da.”

Patxi Plazaola (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Bere garaian udal honetan hau eztabaidatu zen eta uste dugu gauza batzuk aurrera eramaten ari direla. Guk onartzen dugu berriro ere gai hau aurkeztea, baina uzte dugu foruak irekita daudela eta gainera Beasaingo Udala sentzu honetan lana egiten ari da. Guk gai honi buruz kontramozioa aurkezten dugu.”

Jarraian Patxi Plazaola jaunak kontramozioa irakurri du:

“GIZARTE ESKUBIDEEN GUTUNAREN INGURUKO MOZIOA

Mendebaleko gizartean , soldatapeko lana da, gizarte-integrazioako bide bakarra herritar gehienentzat. Honen bidez, bizitza duina, autoestima eta hiritartasun osoa izateko beharrezko dituzten baliabide ekonomikoak lortzen baitituzte. Beraz , norbanako bakoitzaren eta lanaren arteko lotura hausten bada, ezinezkoa da bermatu bere osotasunean persona orok duen eskubidea gizartekide izateko.

Honela, bai gizarteak eta baitare Administrazio publikoek , gizarte-haustura arriskua ekiditeko lanean ihardun behar dute eta bazterketa soziala gainditzeko neurriak hartu.

MOZIOA

1. EUSKADIKO hiritar guztiek oinarritzko beharrianak beteta izateko eskubide dutela adierazten du Udal honek; beraz, bizitza autonomo eta duina izateko eskubidea.
2. Administrazio Publikoko negoziazio mahaikideei (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak , EUDEL eta bere langileak) , Udal honek eskatzen die Lan Harremanetarako Kontseiluan onartutako Enpleguari buruzko Akordioaren ildotik jarraitzeko . Hala nola , lan-ordutegia , aparteko orduak kentzea, plantilak ordezkatu eta berritzea, alde baterako laneko enpresen eta zerbitzu enpresen erregularizazio gaien inguruan adostasuna lortzea.
3. Garapen ekonomikoa bultzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen jarraitzea eskatzen die Udal honek Herri Erakundeiei eta aldi berean Herri hontan aberastasuna eta lana sortzen ari diren pertsona eta erakundeei ere laguntzen.
4. Udal hontako Gizarte-ongizate Sailak pobreziaren mugan bizi diren herritarren alde egiten ari den lana aintzakotzat hartu. Bideanabar , beste behin ere adierazi herritar guztiei udaleko gizarte-ongizateko ateak zabalik daudela eta premi gorrian dauden pertsonen egoera hobetzeko ahaleginak egingo direla orain arte egin diren bezala.

Beasain, 1999ko azaroaren 25a

EAJ- PNV

EA”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: "Seguimos pensando que no es el foro adecuado para presentar una moción de este tipo."

Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak: "Con el texto no podemos estar en contra. Estamos completamente a favor. Creo que tampoco es el momento de entrar a debatir detalles sobre la jornada laboral sobre el salario social, etc. cuando existe otro ámbito para esto. Vamos a votar a favor."

Andoni Antxia (EH) jaunak: "Guretzat testu honekin guk eskatutako filosofia jasotzen da eta behar adineko zehaztasuna ez delako ematen abstenitu egingo gara."

Horren ondorioz, aurkako mozioarekiko bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak: 4 (EH)

Horren ondorioz, EAJ/PNV-EAk aurkeztutako mozioa onartu da.

8- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

Jorge Juan Outeiral (PP) jaunak: "Supongo que antes cuando Andoni Antxia ha hablado de las armas se refería supuestamente a la pistola que podría llevar el guardaespaldas. No sé si la lleva o no supongo que sí. Mi percepción personal es que en ese momento no había ningún motivo para acercarse aquí, pero supongo que habrá sido por celo profesional, pero ya que ha puesto tanto énfasis y empeño en la aplicación de la ley en el comentario que ha hecho (con mucho fervor, por cierto) en contra de la tenencia de armas, yo le animo a que lidere una moción en contra de la tenencia y uso de armas por parte de cualquier ciudadano, que yo por supuesto votaré a favor."

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta berrogeita hamarreen amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatut.

